

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Frantziako presidentzialen karietara

Boz emaleen %80 baino gehiago joan da bozkatzera. Dударik gabe antzinako presidentzialetan gertatutako inarrosaldiak ondorioa izan du eta hautesleria ohartu da benetako erantzukizuna zuela oraingoan.

Eta bat-batean, bozkatuz gero aldaketa nagusi batzuk gertatuko direla sinetsi behar dute. Inondik ere, aldi honetan Royalek lortzen badu ezkerreko boz emaleen sostengua, nahiko lan izango du Bayrouren boz emaleengana iristeko. Ez da baitezpada boz emaile mota bera, ez dituzte helburu ez interes berak. Hain zabala den esparruaren lotzeko, hurbiltzeko ariketa dialektiko oso fina eta, dudarik gabe, azalekoa erabili beharko du Royalek.

Ezkerraren oinarrizko etikaren urtzen ikustearen beldurrez, dagoneko komunistek ezkerreko hizkuntza garbia eskatu diote. Ez du Royalek lehen urratsean horrelakorik erakutsi, lehen lehenik Bayrouren azalpen batzuk hartu baititu kontuan, eta horrek adierazten digu ez duela ezkerreko politika era trinkoan garatzeko asmorik.

Baina, funtsean, zer aldatuko da guretzat Ipar Euskal Herrian? Zeren hau baita interesatzen zaiguna. Orain arte entzun dugunarekin Sarkozy eta Royalen arteko desberdintasuna zertan datza? Royalek ez du gehiago departamendurik aipatzen, *Pays* delakorekin nahikoa dela dio, eta euskararen ofizialtasunari buruz, Europako Karta aplikatuko duela. Sarkozy ez



GAIZKA IROZ

du horrelako kezkarik, ez du iritzi ohargarririk agertu. Haatik, barne ministroa izan den bitartean euskal departamenduaren aldeko diru laguntza eman zuten Herriko Etxeak auzipetu ditu, Laborantza Ganbarak sekulako arazoak ditu frantses administrazioarekin. Maila horretan Royalek eginen duena ez dakigu, sozialistak oso zentralistak dira, aspaldi aberztaleen ondoan ibili baziren ere, aldendu ziren, eta iragan —edota arbel— oso beltza utzi zuten euskal arazoaren inguruan.

Hiru eremu ekonomiko ditugu aipatzeko hauteskundearen bigarren itzulirako. Hasteko, laborantza. Eskakizun argia egiten duena Laborantza Ganbararen bitartez, eta bestalde, gizarte osoa hunkitzen duen ekoizpen transgenikoaren gaia, mahai gainean ezarri dena Lur Berriren okupazioarekin. 1998tik eskuinak transgenikoen ekoizpena onartua du, sozialisten sostengua izan dute okupatzaileek. Arrantzaren eremuan, gure portuak hiltzen ari dira, Frantziak ez du sektore ahul hori babesten. Politikoak isilik

eta, noski, turismoa, gure nortasuna ezabatzen bultzatzen duen ekintza ekonomikoa. Euskara karriketarik desagertu ondotik gure izaera desitxuratzen laguntzen duten turista gehiago ekarrazteko. Hor gorpil zoroa dabil, horretan presidente gaiek ez dute iritzirik, ez da haien aipagaietan kabitzen, goraipatu duten nortasuna ez baita gurea. ■

« Orain arte entzun dugunarekin

Sarkozy eta Royalen arteko desberdintasuna zertan datza? »

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Horrelaxe aurkitzen dut nire burua, nire kontzientziak biktimatizat jotzen bainau. Biktima ni eta nire zirkunstantziak ez direlako kontutan hartzen. Eta guardia zibilaren

amak, bere sotoan jesarrita, hau entzuten dit eta ez du ulertzen zer esaten ari naizen: “gustatuko litzaidake Manuelek orain zu entzutea”. Manuel jada ez dago gurean. Etorri zen eta bertan geratu zen, arnas estu. Bere amak, estu hartu zuen bere bularraren altzoan. Ez zion erantzun. Eta ama hemen dago. Arratsaldeak sotoan pasatzen ditu. Ama guztiak bere seme alabak dituzte.

Biktima

Joxi eta Joxan hormetan ezagutu nituen. Ni gaztea nintzen eta beraien irudiak ni izan nintekeela gogoratzen zidaten. Baina ni eta nire zirkunstantziak hormen aurrean geratzen ziren. Eta iraganetik oraina batera heldu ziren Joxi eta Joxanen gorpuen hezurak. Zulo batean zeuden, kare zuriz estalita. Kareak nonbait bazterrak zuritu egiten ditu. Baina ni eta nire zirkunstantziak karearen aurrean geratu ziren.

Sotoan, udaberriko ilunabarrean, hiru emakume begitانتzen ditut. Ez dira ezagutzen. Baina bakoitza bat da eta bere zirkunstantzia. Gure begiradek bat egiten dute. Gure isiltasunak biktima egiten gaitu. ■